

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

#### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 2826

*EBAZPENA, 2022ko ekainaren 15ekoa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko saioetan azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzen duena.*

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariak deialdia egin zuen, 2022ko urtarrilaren 28an emandako ebazpenaren bidez (2022-02-08ko EHAA; 27. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako. Deialdi horri dagokion azterketaldia bukatu ondoren, hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda argitaratzen da honen bitartez. Hortaz, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea 2022ko urtarrilaren 28ko deialdiari dagokion azterketaldian hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatu duten azterketarien behin-behineko zerrenda.

Bigarrena.– Agintzea zerrenda hori <https://www.ivap.euskadi.eus/2022-1-deialdia/z16-a3hedei/eu/> helbide elektronikoan eta leku hauetako iragarki-tauletan ere argitara dadila:

- Vitoria-Gasteizen: IVAP, Donostia kalea 1, 01010 PK.
- Bilbon: IVAP, Recalde zumarkalea 18, 48009 PK.
- Donostian: IVAP, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.
- Oñatin: IVAP, Unibertsitateko etorbidea 20560 PK.

Hirugarrena.– Azterketa gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 7 egun naturaleko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

Erreklamaziorik egin nahi izanez gero, epe horren barruan, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak propio prestatutako inprimakia erabili behar da. Erreklamazio-inprimakia ebazpen honen I. eranskinean eta IVAPen webgunean aurki daiteke.

Erreklamazioak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dira. Halaber, erreklamazioak aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua adierazitako edozein eratan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 15a.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.

2022ko ekainaren 22a, asteazkena

**IVAP**HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA**ERANSKINA****ERREKLAMAZIO-ORRIA**  
**HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2022/1)****ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK****1. abizena****2. abizena****Izena****NAN****EGIN DUZUN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA**1  2  3  4 **JAKINARAZPENERAKO HELBIDEA****Kalea, zenbakia eta solairua****Herria****Posta-kodea****Posta elektronikoa****Telefonoa****ESKAERA**

Toki gehiago behar baduzu, idatzi atzealdean

**Langilearen sinadura**

....., 2022ko ..... (a)ren .....(a)

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**